

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, AGURAIN, ASTIGARRAGA, BAKIO, BARRIKA, GETXO ETA OIARTZUNGO HIRIGINTZA HITZARMENEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2005-2009

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak hala eskatuta, Agurain, Astigarraga, Bakio, Barrika, Getxo eta Oiartzungo Udalek 2005-2009 aldian izenpetutako hirigintzako hitzarmenen fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osokoaren kideek.

Lanaren mamia adierazitako udalerrietan eta epean hirigintzako hitzarmenen jarduerari buruzko informazioa eskuratzea izan da, aztertutako 43 hitzarmenek legea eta hori betetzeko prozedurak gorde dituzten ondorioztatzeko helburuarekin; horien jarduerak ororen interesa bermatzea du xede, ezarritako ordainak legezkoak dira eta moldez zein epez bete dira; eragiketak zuzen erregistratu dira kontabilitatean eta ezargarriak diren erregistroetan; eta azkenik, udal hirigintzako arautegiaren egoera eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeari egokitzen zaiola egiaztatu da.

Azterlana gauzatu ondoren, HKEEk hainbat ondorio orokor eskuratu ditu; horiek guztiak ondotik zehaztu ditugu eta sakonago jaso ditugu txostenean bertan.

2/2006 Legeak Lurzoruaren Udal Ondarea gainerako ondaretik aske eta bereizirik osatu, zaindu, eutsi eta kudeatzeko derrigortasunari dagokionez, eta Hitzarmenen erregistroa eta artxibo administratiboa edukitzeko derrigortasunari dagokionez, txostenean zehaztu dira arautegia urratzen duten udalak, ez-betetzearen arrazoiak eta horren ondorioak.

Udaletako hitzarmenen zeharkako analisitik honako ondorio orokor hauek eskuratu ditugu:

-Aztertu ditugun hitzarmenetatik 19tan ez da justifikatzen hitzarmenek zein modutara mesedetuko dituzten komunitatearen interesak, aintzat hartuta hirigintzako jarduera guztiak interes orokorra eskuratzera emanak egongo direla.

-2/2006 Legeak lurraldeko aldizkari ofizialean hitzarmenen edukia oso-osorik argitaratzera behartzen du eta gutxienez 20 eguneko epean jendaurrean ezagutzarako edukitzera obligazioak aurkezteko; betekizun hau Legea indarrean sartu ostean onartutako hitzarmenetan bete da, 2tan izan ezik, zeinetan onespene erabakia soilik argitaratu den eta beste 6tan, non eranskinen bat jaso gabe utzi den.

-Hirigintzako aprobetxamenduaren lagapena dirutzearekin ordeztu den aztertutako 14 hitzarmenetatik 10etan, ez da justifikatu lursail eraikigarria jasotzeko ezintasuna edo komenigarritasun eza.

-Aztertutako 22 hitzarmenetan, zerbitzu teknikoek egindako adituen balorazioak ez daude behar bezala justifikatuak edo euskarrituak. Gainera, hirigintzako aprobetxamenduaren lagapena dirutzearekin ordeztu den hitzarmenetatik 12tan, balorazioa hitzarmena izenpetzeko unean egindakoari zegokiona izan da; ordea, balorazioak Birpartzelazio proiektutik ondorioztatutakoak behar luke izan.

-13 hitzarmenetan kontratazio arautegia urratu dela ikusi dugu ondoko arrazoiengatik: hirigintzako aprobetxamenduak zuzenean sustatzaileak egin beharreko obratan gauzatzeagatik, Kontzertazio Batzordeei hirigintzako obren exekuziorako kontratazio publikoaren printzipioekiko errespetua ez eskatzeagatik; edo udalaren beraren zuzeneko esleipenak izateagatik.

-Hitzarmen sistema bitartez gauzatzeko 8 hitzarmenetan akatsak azaleratu dira 2/2006 Legean ezarritako obligazioa dela eta, hirigintza lanen % 7ko abalak aurkezteari dagokionez, aurkezteko epea urratzeagatik edo kopurua txikiegia izateagatik.

Ondoren, txostenak udal bakoitzari dagokionez hautatutako hitzarmen bakoitzaren azterketa xehea eta bertan azaleratu diren hutsak barne hartzen ditu, arestian jaso diren zeharkako ondorio orokorrak eragin dituztenak.